

**UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK**  
**UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROA ILUSTRAZIO ZIENTIFIKOAN:**  
**ILUSTRAZIO MEDIKOA ETA HISTOLOGIKOA (1. ED.)**

**INFORMAZIO OROKORRA**

---

**IKASTURTEA:** 2024/2025

**ARLOA:** Zientzia Esperimentalak

**KREDITUAK:** 3,00 ECTS(\*) kreditu

**MATRIKULA TASA:** 249,00 € (Asegurua 4,00 €)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Maren Ortiz Zarragoitia

**AURKEZPENA**

---

**Ikastaroaren Deskribapena.**

Ilustrazio medikoa marrazki zientifikoaren funtsezko adar bat da, giza gorputzaren anatomia eta prozesu fisiologiko eta patologikoak irudikatzen dituena.

Ikastaro honek ilustrazio anatomiko, kirurgiko eta medikoari buruzko prestakuntza integrala eskaintzen du, anatomia makroskopikotik hasi eta ilustrazio molekular eta farmakologikoraino. Gainera, parte-hartzaileek tresna digitalak erabiltzen ikasiko dute, irakaskuntza eta ikerketa medikoa lagunduko duten ilustrazio zehatzak sortzeko.

**Helburuak.**

1. Giza anatomiari buruzko oinarritzko kontzeptuak bereganatzea, maila makroskopikoan zein mikroskopikoan.
2. Irudi anatomikoak eta prozesu fisiologikoak sortzeko behar den terminologia medikoa eta kirurgikoa ezagutzea.
3. Marrazketa medikoko trebetasunak garatzea, barne-organoetatik hasi eta zelula- eta molekula-prozesuetara arte.
4. Ilustrazio medikoak eta zientifikoak sortzeko software digitalaren erabilera aplikatzea.
5. Medikuntzari aplikatutako infografia menderatzea, gaixotasunen sintomak eta prozedura kirurgikoak irudikatuz..

**Gaiak eta Arloak**

1. Anatomia makroskopikoa: giza gorputza eta haren sistema nagusiak.
2. Oinarritzko terminologia: plano anatomikoak, posizioa eta sekzioak.
3. Ohiko akatsak ilustrazio anatomikoan.



4. Marrazki muskulueskeletikoa: hezurak, artikulazioak, tendoiak eta muskuluak.
5. Erraietako marrazkia: odol-hodiak eta barne-organoak (abdomena eta toraxa).
6. Marrazki neuroanatomikoa: nerbio-sistema zentrala eta zentzumen-organoak.
7. Anatomia mikroskopikoa: zelulak eta ehunak ulertzea eta irudikatzea.
8. Oinarrizko teknika kirurgikoak: ebakiak eta josturak.
9. Irudi kirurgikoa: urrats kirurgikoen eta teknika medikoen irudikapena.
10. Infografia medikoa: datu klinikoen aurkezpena eta miaketen emaitzak.
11. Prozesu fisiologikoen eta fisiopatologikoen ilustrazioa.
12. Marrazketa molekularra eta farmakologikoa: egitura molekularrak eta horien aplikazio medikoak.
13. Datu klinikoen aurkezpenari eta ikerketen emaitzei aplikatutako infografia..

## **ZURE BILA GABILTZA**

---

Medikuntzako ilustrazioarekin maitemindu al zaude eta gorputz humanoaren irudikapenean espezializatu nahi al duzu?

Ikastaro honek anatomia, kirurgia eta ilustrazio medikoan adituekin ikasteko aukera eskaintzen dizu, ilustrazio zehatz eta xeheak sortzeko software digitala erabiliz.

Profesional edo medikuntzaren munduarekin interesa duen afizionatu bazara eta zure trebetasun grafikoak hobetzeko gogoia baduzu, ikastaro hau zuretzat da.

Zure profila honakoa bada, ikastaro hau zuretzat da:

- Ilustrazio medikoan eta kirurgikoan espezializatu.
- Gorputzaren organoak eta sistemak marrazten ikasi, bai maila makroskopikoan bai mikroskopikoan.
- Medikuntzako infografiak sortu eta prozesu fisiologiko eta patologikoak irudikatu.
- Ilustrazio zientifikoaren software digitala erabiltzeko trebetasunak garatu.

## **IRTEERA PROFESIONALAK**

---

Ikastaro honek honako arlo hauetan jarduteko gaitasuna ematen die parte-hartzaileei:

1. Ilustrazio medikoa eta kirurgikoa: irudi anatomikoak, kirurgikoak eta fisiologikoak sortzea.
2. Infografia medikoa: datu klinikoak eta emaitza medikoen diseinua eta aurkezpena argitalpen zientifikoetan.
3. Ikerketa medikoa: prozesu fisiopatologikoen eta azterketa histologikoen ilustrazio zehatzak.
4. Hezkuntza eta Prestakuntza: hainbat hezkuntza-mailatan anatomia eta medikuntza irakasteko ikus-baliabideak diseinatzea.

## **BALDINTZAK**

---

Ikastaro honetan sartzeko, ezinbestekoa da lizentziatura edo gradua izatea, edo ilustrazioko edo diseinuko profesionala izatea.

Programa hau zuzenduta dago:

- Ilustrazio medikoan, anatomian eta kirurgian interesa duten profesionalak (ilustratzaileak edo profesional sanitarioak).
- Ilustrazio digitaleko softwarea erabiltzen dakiten pertsonak: raster eta bektorial.
- Marrazketa-trebetasuna duten pertsonak.

Ikastaro hau ezin hobea da ilustrazio medikoaren ezagutza hurrengo mailara eramateko interesa dutenentzat, tresna aurreratuenak erabiliz medikuntzarako irudikapen bisual zehatzak eta erabilgarriak sortzeko

## **IRAKASKUNTZA**

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2025/04/28tik 2025/05/09ra

**EMATEKO TOKIA:** Presentziala: Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

**HIZKUNTZA:** Gaztelania



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE POSGRADO Y APRENDIZAJE PERMANENTE

## INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

---

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** Zientzia eta Teknologia Fakultatea.

**HELBIDEA:** Barrio Sarriena s/n. 48940 Leioa

**TELEFONOA:** 946 013 548

**POSTA ELEKTRONIKOA:** [ilustracioncientifica.fct@ehu.eus](mailto:ilustracioncientifica.fct@ehu.eus)

**Twitter:** [@IlustraCienti](https://twitter.com/IlustraCienti)

**Instagram:** [@ehu\\_ilustracioncientifica](https://www.instagram.com/ehu_ilustracioncientifica)

**Página web:** [www.ehu.eus/ilustracion-cientifica](http://www.ehu.eus/ilustracion-cientifica)

**(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.**